

KONTROL MOZIOA

Donostia Arena 2016-Ilunbe zentroko erabilera anitzak ziurtatzea dela-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkeztu du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko urtarrilaren 15ean Ogasuneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2013an Udal Gobernuak Ilunbe alokatzeko atera zituen baldintzak direla-eta izan zen auziari dagokion epaia berriki eman du EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak. Argi geratu da orduan egindakoa legezkoa zela. Alegia, Donostia Arena 2016-Ilunbe zentroko erabilera anitzeko aretoari zezenketak egitea ez diren beste erabilera batzuk ematea legezkoa dela. Erabilera horietan sakontzea egun helburu konpartitutzat jo daiteke, iazko urriaren 26an Udalbatzak aho batez onartu baitzuen Udal Gobernuak, kirol eta kultur eragileekin batera, Ilunbe erabilpen askotarako gune izateko proiektua landu behar duela.

Azkenaldiko ibilbideak erakutsi du aurreko Udal Gobernuaren jokabidea zilegia zela; izan ere, egungo Udal Gobernuak kontrako erabakiak hartu dituenez, 2016an ia 9.000 donostiarrek kontsulta egiteko eskaera formalizatu zuten. Eta iaz Udaleko Estrategia Bulegoak egindako inkestaren arabera, donostiarren %71 udal instalazioetan zezenketak egitearen kontra dago.

Aurrekoak horrela, donostiarrek iragarri duten nahiarekiko koherentziaz jokatzeko aldera, Udal Gobernuak erabaki dezake gaiari buruzko kontsulta egiten duen bitartean nolabaiteko moratoria egitea eta, arestian aipatu bezala, Donostia Arena 2016-Ilunbe zentroko erabilera anitzeko aretoari zezenketak egitea ez diren beste erabilera batzuk ematea. Batzordean entzundakoaren arabera, alkatearen iritziz, aldiz, aurten ere zezenketak egitea "Donostia Arena 2016-Ilunbe" zentroko erabilera anitzeko aretoaren erabilera ez dago aurreko guztiaren kontra.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

Donostiako Udalbatzak eskatzen die alkateari eta Udal Gobernuari, Udalbatzak 2017ko apirilaren 27an eta urriaren 26an hartu zituen erabakiak exekutatzeko bitartean, alegia eta hurrenez hurren, gai honi dagokionez donostiarren iritzia-jasotzea martxan jartzen duen bitartean eta "Donostia Arena 2016-Ilunbe" zentroko erabilera anitza hobetzeko proiektua bukatzen duen bitartean, bertan zezenketarik ez bideratzeko.

Donostian, 2018ko urtarrilaren 18an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia